

# GURASOENTZAKO GIDA

E!

E!

ESKOLAN,  
KALEAN ETA  
ETXEAN  
EUSKARA LAGUN



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

araba  álava  
foru aldundia diputación foral

## Ezagutu Araban euskarak izan duen ibilbidea, eta hitz egin honetaz seme-alabekin ere

Historia, euskararen atzerakada, pertsona ospetsuak, gaur eguneko datuak

<https://web.araba.eus/eu/euskara/euskara-araban>



AHOLKULARITZA PROFESIONALA:



AHOLKULARITZA TEKNIKOAK:



BABESLETZA ETA LANKIDETZA:



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

araba álava  
foru aldundia diputación foral

# GURASOENTZAKO GIDA

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak argitaratu dituzten euskararen erabilera sustatzeko giden artean (ai-sialdia, kirola, ludotekak...) oraingo honetan gurasoei zuzendutakoa argitaratu dute.

Garrantzi handia izan du eskolak haur eta gaztetxoak euskalduntzeko orduan, baina, zenbait ikerketek erakusten duten moduan, eskolak bakarrik ezin du, eta ezinbestekoa da neurriak hartzea eskolatik kanpo ere, etxean, kalean, parkean eta bestelako jardueretan euskararen erabilera ahalbidetzeko.

Gurasoak izaten dira haurrentzako erreferenteak bizitzako eremu guztietan, eta halaber, erabakiak hartzen dituztenak, esaterako, ikasteko eredia edo eskolaz kanpoko ekintzak aukeratzean. Bestalde, asko eta asko izaten dira guraso horien zalantzak eta kezkek aukeraketa horiek egiteko momentuan: Seme-alabak euskarazko eredueta matrikulatzea komeni zaigu? Euskara ikasten ari banaiz, euskaraz egin behar diot? Nola lagunduko diogu etxeko lanekin? Zer egin euskaraz ez egiteko esaten badit?...

Eskuarteak daukazu gida honetan, galdera horien erantzunak aurkituko dituzu, baita aholkuak eta jarraibideak ere jakiteko nola jokatu familietan sortu ohi diren egoeren aurrean. Gainera, praktika onak eta erronkak ere topatuko dituzu; hots, seme-alaben onurarako izango diren jokabide edo ekintzak eta horiek praktikara eramateko proposa-

men zehatzak. Horrez gain, hainbat baliabide ere jarri dizkizugu eskura: ohiko esaldiak, abestiak, ipuinak, ikus-entzuzko materialak, jolasak... eta gurasoentzako dekalogoak.

Gida ele bietan kaleratu dugu, 1 eta 10 urte bitartean eskolatutako haur eta gaztetxoek guraso guzti-guztiengana heltzea delako gure asmoa; izan ere, euskara ez dakiten edo gutxi dakiten gurasoek ere asko egin dezakete haien seme-alabak euskalduntzeko eta euskara erabil dezaten bultzatzeko.

Elkarlanean aritu gara zenbait guraso-elkartetako partaideekin, gidaren edukiak zehazteko, eta eskerrak eman nahi dizkiegu haien ekarpenengatik eta laguntzeko erakutsi duten prestutasunengatik. Haiek izan dira, azken finean, gida honen beharra aldarrikatu dutenak eta eskuetan daukazu produktua sortzea ahalbidetu dutenak. Eta haiek izango dira gidaren izenburuan adierazten dena lortuko dutena.

ESKOLAN,

KALEAN ETA

ETXEAN

EUSKARA  
LAGUN

# Aurkibidea

**5** Ba al duzu haurrik? Ama edo aita zara?  
Aitona edo amona? Amama edo aitita?

**7** Orain dela gutxi etorri zara Arabara.  
Seme-alabak euskarazko eredueta matrikulatzea komeni zaizu?

**8** HIZKUNTZA BAT BAINO GEHIAGO ONDO IKASTEA

**10** Euskaraz ikastetik, EUSKARA ERE BERE EGITERA

**11** Praktika onak eta erronkak

**12** Euskaraz pixka bat baldin badakizu, erabili

**13** Euskaraz badakizu, zure seme-alabekin beti euskaraz egin

**15** Ez dakizu euskaraz? Zuk uste baino gehiago hitz egin  
dezakezu

**18** Zaindu etxean euskarak duen lekua

**22** Eskaini euskarazko bizipenak, eskola orduz kanpoko  
jarduerak zaindu

**24** Zalantzen aurrean, lasai jokatu

**24** Nola lagundu etxerako lanekin euskaraz ez badakigu?

**28** Zer egin nik euskaraz ez egiteko eskatzen badit?

**29** Gurasookin edo anai-arreben artean erdaraz egiten hasten  
badira, zer zaindu?

**30** Haur elebidunen guraso euskaldunen dekalogo

**32** Bibliografia

# Ba al duzu haurrik? Ama edo aita zara? Aitona edo amona? Amama edo aitita? Gida hau interesatuko zaizu

Guraso berriak zaretenok edo izateko bidean zaudetenok hainbat erabaki hartuak dituzue honezkero. Hizkuntzei dagokienez:

*Erabaki al duzue etxeko hizkuntza(k) zein izango den (diren?). Nola hitz egingo diezuen? Nola nahiko zenuketen beraiek zuei hitz egitea? Zein hizkuntzatan abestuko diezue? Eta ipuinak kontatu? Haurraren bizitzan eta egunerokotasunean garrantzia handia izango du inguruan dituen hizkuntzekin duen harremanak. Zuen artean gai hauetaz hitz egitea eta erabakiak hartzea garrantzitsua da seme-alabekin izango duzuen harremanerako eta beraien egunerokotasunerako.*

Gure gizartea eleanitza da. Bi hizkuntza ofizial ditugu eta beste asko hitz egiten dira. Haur eta nerabeak eleaniztunak izatera iritsiko dira.

Hizkuntza bat baino gehiago ikasteak **abantaila** asko ditu. Besteak beste:

- » **Sozialak:** bi hizkuntza ofizial dituen gizarte batean zailtasunik gabe eta aukera berdintasunean parte hartzeko gai izango dira.
- » **Kulturalak:** hizkuntza horietako kulturak ezagutzeko eta bizitzeko aukera izango dute.
- » **Kognitiboak:** burmuinarentzat osasungarria da eta, oro har, hainbat gaitasun gehiago garatzeko aukera ematen du: memorizazioa, arazoei irtenbideak aurkitzea, informazio garrantzitsua hautatzea, zeregin batetik bestera arin pasatzea, eta abar. Hori ondoko bideo honetan azaltzen dute:



<https://youtu.be/MMmOLN5zBLY>  
**Burmuin elebidunaren abantailak.**  
Mia Nacamulli.



Helduon ardura da haurrei aukera hori ematea eta prozesu horretan laguntzea.



# Orain dela gutxi etorri zara Arabara. Seme-alabak euskarazko eredueta matrikulatzea komeni zaizu?

- » Zuen seme-alabentzat aukera ona izango da euskaraz ikastea.
- » Batetik, hizkuntza bat gehiago ikasi ahal izango dute.
- » Bestetik, euskal gizartean integratzen lagunduko die. Euskarazko kultura ezagutzeko, ulertzeko eta bizitzeko aukera izango dute.
- » Gainera, etorkizunean lan aukera gehiago izango dituzte. Hizkuntzak ikasteak lan aukera gehiago izateko bide ematen du, eta Euskal Herrian euskara beharrezkoa da hainbat lanetan. Etorkizuna hobea izan daiteke euskara ikasten badute.
- » Are gehiago, eleaniztasunera begira euskara eta gaztelania ikastea lagungarria izan daiteke, baita eskolak eskaintzen dien ingelesa ikastea ere. Hizkuntza bat baino gehiago dakienak erraztasun handiagoa du beste batzuk ikasteko hizkuntza baten eta bestearen baliabideak erabil ditzakeelako, eta euskara eta gaztelania oso ezberdinak izanik, bi hizkuntzek lagunduko diote.
- » Zuen seme-alabek gaztelania ondo ikasiko dute, eta gai izango dira hizkuntza horretan behar bezala komunikatzeko ahoz zein idatziz. Beste herrialderen batera bizitzera joatea erabakitzen baduzue, ez dute zailtasunik izango dakiten beste hizkuntza horietako batera egokitzeko.
- » Eskolak lagunduko die zuen seme-alabei hizkuntza bat baino gehiago aldi berean ikasten.
- » Matrikulatzeko orduan, euskarazko irakaskuntza eskaintzen duten ikastetxeak aukeratzeak eskola ingurune askotarikoagoa eta aberatsagoa bermatuko die.
- » Hezkuntzan hizkuntza eredu ezberdinak eskaintzen dira. Euskarazko eredu (D eredu) da Araban eskari handiena duena. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan haur gehienek eredu horretan ikasten dute eta 40 urte baino gehiagoko ibilbidea du.
- » D eredu da euskara gehien eskaintzen diena. Guztia euskaraz izango da gaztelania eta ingeles ikasgaiak izan ezik. Bi hizkuntza ofiziale-tan gaitasun ona lortzeari begira gehien laguntzen duen eredu da, euskara gehien erabiliko duten eredu baita.



## HIZKUNTZA BAT BAINO GEHIAGO ONDO IKASTEA

*Hizkuntza bat baino gehiago ondo ikasten lagundu diezaiekegu seme-alabei. Eskolak lan handia egiten du bide horretan, baina inguruaren laguntza behar-beharrezkoa da.*

- » **ZAINDU** etxeko hizkuntza
- » **LAGUNDU** euskararekin
- » **INTERESA** erakutsi beste hizkuntzekiko



**HELBURUA DA HIZKUNTZA ERRAZ ERABILTZEKO GAI IZATEA.** Helburua ez da bakarrik hizkuntza bat ikastea, baizik eta ondo ikastea, hots, hizkuntza batean baino gehiagotan hiztun onak izatera iristea. Zein da hiztun ona? Pentsatzen eta sentitzen duena hitzez adierazten dakiena, ahoz zein idatziz, hau da, eguneroko harremanetan eta bestelako zereginetan komunikatzeko gai dena.

**LORPENA EUSKARAZ ERE EROSO ETA SEGURU SENTITZEA DA.** Lorpene ez da euskaraz ikastea, euskaraz ere edozein egoera eta harremanetan eroso sentitzera iristea baizik. Hau da, aukeratu ahal izatea hizkuntza bat edo beste erabiltzea, bai egoera formaletan, baita informaletan ere. Adibidez: ikasketetan zerbait idatzi edo ahoz azaldu behar dugunean, informazioa eskatuz dei bat egin edo mezu bat bidaltzen dugunean, zerbaiti buruz denda edo erakunderen batean galdera egiten dugunean, baina baita lagunartean hizketan edo jolasean ari garenean, lagun berriak egin nahi ditugunean, sare sozialetan idatzi edo bideoak igo nahi ditugunean, eta abarretan.

Hizkuntzen ikaste prozesua modu positibo eta aberatsean bizitzeko modua gertuko hizkuntzak zaintzetik hasten da.

**ZAINDU ETXEKO HIZKUNTZA:** Zein da edo zeintzuk dira zuen etxeko hizkuntza(k)? Zaindu hizkuntza horiek: abestu, ipuinak kontatu, berritsuak izan... Lehen hizkuntza horretan oinarri on bat eta aberastasuna izateak beste hizkuntzak ondo bereganatzea erraztuko die. Eskolari laguntzeko modu eraginkorrenetako bat etxeko hizkuntzak zaintzea da, horiek edozein izanik ere.

**LAGUNDU EUSKARAREKIN:** Araban euskara gero eta leku eta egoera gehiagotan erabiltzen den arren, oraindik ere hizkuntza gutxitua da. Eskolan euskaraz ikasi arren, testuinguru askotan leku mugatua du eskolaz kanpo, eta garrantzitsua da haurrei euskara entzuteko eta erabiltzeko aukerak ematea.

**INTERESA ERAKUTSI IKASTEN ARI DIREN EDO INGURUAN DITUZTEN BESTE HIZKUNTZEKIKO:** gure gizartea anitza da eta hizkuntzen ikasketa aniztasun hori modu aberasgarrian bizi dezaten lagungarria izan daiteke. Ingelesaren ikaste prozesuarekiko interesa erakutsi, entzuteko eta erabiltzeko aukerak eman, baina horretaz gain inguruan ditugun beste hizkuntzak bistaratu, eta lagundu hizkuntza bat baino gehiago ikasten eta erabiltzen aniztasuna modu natural eta positiboan ikus eta bizi dezaten.



## Euskaraz ikastetik, EUSKARA ERE BERE EGITERA

*Hizkuntza bat bereganatzea eskolan edo etxean hizkuntza hori ikastea baino askoz gehiago da. Haurrak eta nerabeak sozializazio prozesu batean daude eta prozesu horretan hizkuntzak behar dituzte: lagunak egiteko, harremanetan jartzeko, ikasteko, jolasteko...*

Hizkuntza bat gure egiteko, hizkuntza horrekin harreman indartsu bat behar dugu: etxeko hizkuntza izan daiteke, eskolakoa, lagunartekoa, kirol jardueretako, musikan entzuten duguna eta abar.

Euskararekin harreman indartsua eskaintzen badiegu, hizkuntza hori ere bereganatzen lagunduko diegu. Zer behar dute horretarako? Euskararekin eskolaz kanpo ere harremana izatea: entzutea, erabiltzea eta bizipenak izatea. Zenbat eta gehiago, hobe.

# Praktika onak eta erronkak

Praktika onak seme-alaben onurarako izango diren jokabide edo ekin-tzak dira. Xumeak eta zehatzak. Helduok nahita erabiltzen ditugunak. Hona hemen horietako batzuk proposamen eta erronka zehatzekin.





## Euskaraz pixka bat baldin badakizu, erabili

Pixka bat bada ere euskaraz baldin badakigu, positiboa da dakigun euskara guztia erabiltzea. Agian akatsak egingo ditugu, baina horrek ez du esan nahi gure seme-alabek akats horiek errepikatuko dituztenik: eskolan ikasten ari dira, telebistan entzuten dute, eskolaz kanpoko jardueretan erabil dezakete, eta abar.

Zaindu behar dugu gure euskara mailak komunikazioa ez oztopatzea. Hau da: eroso sentitzen garenean, erabili lasai. Erronka berriak, txikiak izanda ere, euskaraz ikasten jarraitzeko onak eta lagungarriak dira.



### **Erronka, 5 urte arteko haurrik baduzue: abestiekin jolastu**

Aukeratu zuek ezagutzen duzuen eta gustukoa duzuen abesti bat. Etxean zehar (edo baita kalean ere) abesti hori abestu, baina aldaketak sartu: normal hasi, azkartu, mantsotu, baxuago abestu, ozenago, garrasika, barrez, negarrez.... Oso ondo pasako duzue erregistroekin jolastuz!



### **Erronka, 5 urtetik gorako haurrik baduzue: egunero hiru elkarrizketa euskaraz**

Eguneroko errutina diren hiru momentu aukeratu: jatorduak (gosaria, bazkaria, merienda, afaria...), eskolara joateko bidea, jantzeko tartea, lotara joateko tartea... Hiru momentu horietan saiatu egunero euskara erabiltzen beraiekin. Euskaraz nahiko ondo badakizu, elkarrizketa osoa. Euskaraz gutxi badakizu, gutxienez elkarrizketa horietan beti errepikatzeko diren esaldiak.





## Euskaraz badakizu, zure seme-alabekin beti euskaraz egin

Euskaraz ondo edo nahiko ondo baldin badakizu, eta zure seme-alabekin harremana euskaraz izatea nahi baduzu: beraiei beti euskaraz egin. Egoera eta harreman guztietan: etxean, kalean, lagunartean, familian... Ez hartu kontuan testuingurua, ezta inguruan dauden batzuek euskaraz ez jakitea ere: elkarrizketa seme-alabekin bada eta gure harreman hizkuntza euskara bada, ez da errespetu falta besteek ez ulertzea. Elkarrizketa hainbaten artean denean, denek ulertzen duten hizkuntza erabil dezakegu. Beharrezkoa ikusten baduzu, ingurukoei azaldu erabaki hori hartu duzuela eta zein den arrazoia. Zuentzat eta beraientzat jokabidea erosoago hartzen lagundu dezake.



**Erronka, 5 urtetik beherako seme-alabarik baduzue: beste familiekin euskaraz**

Erronka eskolako beste familia guztiekin agurrak euskaraz egitea izango da. Guztiak ezagutzen dituzten agurrak dira, eta beharbada batzuek euskaraz erantzungo dizuete. Egin proba!





## **Erronka, 5 urtetik gorako seme-alabarik baduzue: seme-alabak dendetan/saltokietan euskaraz eskatzera animatu**

Eguneroko erosketak egiten dituzuen komertzioetan, dendari edo zerbitzarietako hainbatek badakite euskaraz edo gutxienez ulertzen dute, areago gazteak badira. Egin saia-kera eta konturatuko zarete. Horrela den kasuetan, animatu seme-alabak beraien izan daitezen behar duzuen eskatzen dutenak, eta euskaraz eska dezaten zaindu.

Ba al zenekien gaur egun arabarren erdiek ulertzen dutela euskara, eta kopuru hori handiagoa da gazteen artean; izan ere, 35 urte baino gutxiagokoan artean hamarretik zortzik ulertzen du, hau da, gazteen artean ia guztiek ulertzen dute.

<https://euskaraba.eus/dokumentuak-ulermenaren-mapak/>



Eta ez ahaztu hau: euskararen erabilerari erreparatzen badiogu, Gasteiz da erabileran aurrera egin duen hiriburuetako bat, eta gehien egin duena aurrera, hain zuzen ere.

<https://alea.eus/araba/1656075746922-euskararen-kale-erabileraneurketa-araba>



Bi urtez behin Euskaraldia izaten da, edozein egoera eta harremanetan euskaraz egin ahal izatea erraztu nahi duen ekimena. Batzuk Ahobizi edo Belarriprest txaparekin ikusiko dituzue. Baliatu ekimen hori euskaraz izan daitezkeen harremanak bistaratzeko.

**Zelan?  
Zer moduz?**





## Ez dakizu euskaraz? Zuk uste baino gehiago hitz egin dezakezu

Euskaraz ez badakigu edo oso gutxi baldin badakigu, egunerokotasunean erabil daitezkeen esaldiak ikas ditzakegu eta erabiltzen hasi. Modu erraz eta dibertigarri batean euskarazko hitzak txertatu ditzakegu seme-alabekin dugun harremanean. Jokabide hau seme-alaben onurarako izango da: transmitituko diegu euskara guretzat ere baliagarria eta aberasgarria dela, beraiek ondo ikastea guretzat garrantzitsua dela eta hizkuntzarekin gozatu dezakegula.



### Erronka: eguneroko esamoldeak euskaraz erabili

Aukeratu egunero erabiltzen diren hiru esaldi eta hasi euskaraz erabiltzen. Erabili beti euskaraz. Eroso sentitzen zareten neurrian, hasi beste batzuk ere erabiltzen. Modu erraz eta atsegin batean gure egunerokotasunean euskarari nahiko leku handia ematea lor dezakegu.

#### 0 ETA 5 URTE ARTEKO HAURRIK BADUZUE

<b>Egun on!</b>	<i>¡Buenos días!</i>	<b>Gustatzen zaizu?</b>	<i>¿Te gusta?</i>
<b>Bat, bi, hiru, lau, bost...</b>	<i>Uno, dos, tres, cuatro, cinco...</i>	<b>Goazen jolastera!</b>	<i>¡Vamos a jugar!</i>
<b>Muxu bat?</b>	<i>¿Un beso? ¿Me das un beso?</i>	<b>Ondo pasa duzu?</b>	<i>¿Lo has pasado bien?</i>
<b>Bai goxoa!</b>	<i>¿Qué rico!</i>	<b>Goazen ohera</b>	<i>Vamos a la cama</i>

#### 5 URTETIK GORAKO HAURRIK BADUZUE

<b>Zer moduz plazan?</b>	<i>¿Qué tal en la plaza?</i>	<b>Hartu berokia, hotz egiten du</b>	<i>Coge el abrigo, hace frío</i>
<b>Nora zoaz orain?</b>	<i>¿A dónde vas ahora?</i>	<b>Zer meriendatuko duzu?</b>	<i>¿Qué vas a merendar?</i>
<b>Motxila prestatu duzu?</b>	<i>¿Has preparado la mochila?</i>	<b>Kontatu zer ikasi duzuen gaur</b>	<i>Cuéntame que habéis aprendido hoy</i>
<b>Afaltzeko ordua da</b>	<i>Es la hora de cenar</i>	<b>Lagunekin geratu zara?</b>	<i>¿Has quedado con los amigos y amigas?</i>

Sarean hainbat bideo aurkitu ditzakezu oinarritzko esaldi batzuk ikasteko.

Por ejemplo: <https://youtu.be/Ar64pxJLWIU?list=TLPQMTAxMTIwMjL1AGr7mDUvdQ>  
**Aprender Euskera: 50 frases de andar por casa**





## **Erronka:** **ikasi abesti bat eta kantatu seme-alabekin**

Euskarazko abesti bat ikas dezakezue eta beraiekin abestu, gutxienez abestiaren leloa. Ikasi hilabetero abesti bat: erraza da eta ondo pasako duzue.

### 0-5 URTEKOENTZAT ABESTI ADIBIDEAK

***Sorgiña Piruliña***

[https://youtu.be/\\_OIDCx94DIw](https://youtu.be/_OIDCx94DIw)



***Pintto pintto***

<https://youtu.be/D-maafilOs0>



***Jasotzera***

<https://youtu.be/13ltJovRmnw>



***Ikusi ikusi han***

<https://youtu.be/Klap8aknfKo>



***Jon Braun***

<https://youtu.be/NR4hEHesFWs>







## 5 URTEK GORAKOENTZAT ABESTI ADIBIDEAK

**Furra furra**  
**Oskorri**

<https://youtu.be/pE3quEtcNAI>



**Arratsalde honetan**  
**Sorotan Bele**

<https://youtu.be/4fIS-0IFhDo>



**Aldapan gora**  
**Huntza**

<https://youtu.be/ONsp-SMT6is>



**Lagunak**  
**Goazen!**

<https://youtu.be/XAOrphNqsA>



**Baloreak**

<https://youtu.be/2G1zQkH28Dg>



Sarean euskarazko abesti asko aurkituko dituzue. Gune honetan, adibidez, abestiak entzun daitezke eta letra irakurri. Seguruenik eskolan ikasten ari diren abestiak hemen ere aurkituko dituzue: [www.txantxangorria.eus](http://www.txantxangorria.eus):

<http://txantxangorria.eus>



Kontuan izan ikastetxeetatik zerrenda hau osatzeko zerrendak eta baliabideak eskaini ahal izango dizkizuetela.



## Zaindu etxean euskarak duen lekua

Gure seme-alabek euskara balio indartsuekin lotu dezaten eta beraientzat hizkuntza erakargarria izan dadin, beharrezkoa da txikiak direnetik etxean euskararen lekua zaintzea.

Entzun eta ikus dadila euskara etxean.

Zer egin dezakegu?

Hainbat eta hainbat aukera eta tresna dauzkagu: irratia, musika, telebista, aldizkariak, sare sozialak, komikiak, liburuak, hizkuntza-paisaia eta abar.

Adibidez:

- » Beraiekin jolasean ari garenean edo eskulan bat egiten ari garenean, euskarazko musika jarri
- » Abestu beraiekin batera etxean eta kalean
- » Euskarazko ipuinak kontatu eta irakurri
- » Etxean euskarazko esaldiak edo leloak dituzten marrazkiak, kartelak eta egutegiak jarri
- » Etxeko lanak egiten ari garenean euskarazko irratia jarri
- » Eta bururatzen zaizuen beste hainbat gauza



**Euskarazko  
produktuak**

<https://www.katalogoa.eus>



**Filmak eta marrazki  
bizidunak**

<https://zernonikusi.eus>



**Filmak, aplikazioak,  
musika eta beste  
hainbat baliabide**

<https://eranafarroa.eus/baliabideak>



**Marrazki bizidunak**

[https://www.youtube.com/channel/  
UCQgIdAj7vF3DHMF4esJd89Q/  
featured](https://www.youtube.com/channel/UCQgIdAj7vF3DHMF4esJd89Q/featured)



**Entzuteko ipuinak**

<https://www.etxegiroan.eus>



**Entzuteko ipuinak**

<https://www.aittu.eus>



**Entzuteko ipuinak**

[https://www.symbaloo.com/mix/  
ipuinklasikoak](https://www.symbaloo.com/mix/ipuinklasikoak)



**Irakurtzeko eta  
solas egiteko**

[http://www.solasegitekoipuinak.net/  
audio-liburu/menu.html](http://www.solasegitekoipuinak.net/audio-liburu/menu.html)



**Abestiak**

<http://txantxangorria.eus>



---

## Abestiak

<https://enekantak.org/multimedia/bideoak>



---

## Karaokea

<https://www.youtube.com/playlist?list=PLEF3CEC86C69BA527>



---

## Euskarazko jolasak

<https://www.urtxintxa.eus/jolasguneak/jolasak>



---

## Euskarazko musika

<https://www.badok.eus>



---

## Irratia euskaraz

<https://www.eitb.eus/eu/gaztea>



---

## Aldizkaria

<http://www.irrienlagunak.eus>



---

## Irakurtzeko ipuinak

<http://www.eliburutegia.euskadi.eus>



---

## App bilduma jolastuz ikasiz

<http://www.azkuefundazioarenegunkaria.eus/haurrentzako-euskarazko-50-aplikazioen-bilduma-jolastuz-ikasiz>



---

## Jolas sorta

<https://jolasak.eu>





### **Erronka 0-5 urte arteko haurrik baduzue: ipuinekin jolastu**

Euskaraz ez badakizue edo oso gutxi badakizue, animatu ipuin bat euskaraz irakurtzera. Testu gutxi duen liburu bat aukeratu. Ipuina irakurri aurretik edo ondoren, zuen hizkuntzan irudietan agertzen denari buruz hitz egin seme-alabekin.

Euskaraz badakizue edo euskaraz irakurtzeko gutxieneko gaitasuna baduzue, semearekin-alabarekin liburutegira joan eta etxera eramateko ipuin bat aukeratu. Etxean, ipuina irakurri aurretik, azalean zer agertzen den ikusi eta ipuina nolakoa izango den asmatu: zure seme-alabaren adinaren arabera, berak ere lagundu dezake, edo bestela guk gure buruari galderak egin eta erantzunez osatuko dugu.

Ondoren, ipuina irakurriko dugu eta asmatu ote dugun ikusiko dugu.



### **Erronka 5 urtetik gorako haurrik baduzue: egunero euskarazko musika**

Aukeratu seme-alabekin batera zaudeten tarte bat bazkalostean, afaldu aurretik, gosaltzerakoan, autoan zoaztenean... Hurrengo lau asteetan tarte horretan jarri euskarazko musika, gutxienez hiru abesti. Gustukoena dituzuenak errepikatu baina saiatu abesti berriak ere entzuten.





## Eskaini euskarazko bizipenak, eskola orduz kanpoko jarduerak zaindu

Euskararen kasuan, eskolaz kanpo zenbat eta gehiago erabili, orduan eta askoz hobeto. Ez soilik hizkuntza ondo ikasteari begira, eskolaz kanpo euskara erabiltzeak hizkuntza horretan bizipenak izatea eta hizkuntza horrekin ere gozatzea ekarriko die: eman diezaiegun horretarako aukera.

Euskararen erabileraren ikuspegitik, haurrek eskolan igarotzen duten denbora mugatua da -urtean zehar askoz ordu gehiago ematen dituzte beste egoera batzuetan: etxean, kalean eta abarretan-.

Eskola orduz kanpoko jardueren aukera handia dugu inguruan: kirola, antzerkia, musika, aisialdia... Jarduera horiek mesedegarri diren ezaugarriak dituzte:

- » **Jarduera dinamizatuak dira:** hezitzaile edo entrenatzaile batek gidatzen ditu eta euskararen erabilera ere dinamizatu dezake.
- » **Bizipen iturri dira:** ez dira eskolako jarduerak, harreman eta bizipen indartsuak eta anitzak ematen dira jarduera hauetan. Partiduetan, emankizunetan, joan-etorrietan, entrenamendu edo prestaketetan denetarikoko emozioak egoten dira: poza, urduritasuna, tristura, hase-reea, beldurra, maitasuna, gorrotoa, enpatia...
- » **Euskaraz dakiten eta erabiltzen duten pertsona erreferenteak eskaintzen dizkie, haur eta nerabeentzat gertukoak eta erakargarriak izan daitezkeenak:** entrenatzaile edo begiraleak, jarduera bera egiten duten gazteak, eta abar.
- » **Eskolak eskaini ezin dituen hizkuntza erregistroak garatu ditzakete:** lagunarteko harremanei begira oinarrizkoak diren hainbat hitz eta hizkuntza egitura bereganatu ditzakete.





**Erronka:**  
**euskarazko ekitaldi batean parte hartu**

Euskarazko ekitaldien eskaintza nahiko zabala eta anitza egiten da gaur egun, horietako asko espazio publikoetan eta doakoak. Ikastetxeek ere antolatzen dituzte eta auzoetan ere izaten dira. Seme-alabekin gustuko egoerak euskaraz partekatzeke aukera bikaina izango da.

ZEIN IZAN DA JARDUERA?	ZER MODUZKO BIZIPENA IZAN DA?

Seme-alabekin batera parte hartzeko jardueren berri izan nahi baduzue, hemen Arabako jarduerari buruzko informazio eguneratua aurkituko duzue:

<https://alea.eus/agenda/>



**Erronka:**  
**Parte hartu euskararen egunean**

Urtero abenduaren 3an euskararen eguna ospatzen da eta eskolan edota herrian hainbat jarduera egingo dira. Animatu seme-alabak parte hartzera, baina parte hartu zuek ere be-raiekin batera.

ZEIN IZAN DA JARDUERA?	ZER MODUZKO BIZIPENA IZAN DA?

# Zalantzen aurrean, lasai jokatu

## Nola lagundu etxerako lanekin euskaraz ez badakigu?

Euskaraz jakinda edo jakin gabe ere seme-alabei ondo lagun diezaiekegu ikaste prozesuan.

Batetik, kontuan izan gauza bat dela eskolako lanekin laguntzea eta beste bat eskolako lanak guk egitea. Eskolako lanak beraiek egin behar dituzte. Eskolan ikasi duten zerbait da eta landu egin behar dute.

Guraso moduan egokia da eskolako lanekin laguntzea, baina argi izan behar dugu zer den garrantzitsuena.





**Garrantzitsuena ez da gure seme-alabek eskolako lanak beti ondo eginda eramatea, baizik eta ikasketekiko interesa izatea, ahalegintzea eta eskolako lanekiko ardura hartzea.**

Guraso moduan norabide horretan lagundu behar genieke. Ikasteko ohiturak eta motibazioak landu beharko genituzke:

IKASTEKO OHITURAK	IKASKETEKIKO MOTIBAZIOA
Lagundu ikasketa ohiturak garatzen. Oinarrizkoa izango da ikaste prozesuari begira.	Zaindu ikasketekiko motibazioa. Ikasketetan arrakasta izateari begira asko lagunduko die.
<p><b>Zer zaindu dezakegu?</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>» Errutinak: eskolako lanak egiteko ordutegiak finkatu.</li> <li>» Lekua: leku egoki bat eskaini, beti leku bera izatea komeni da.</li> <li>» Antolaketa: eskolako lanak antolatzen ikasten lagundu, hau da, lehentasunak jartzen, denborak neurtzen eta abar.</li> </ul>	<p><b>Zer zaindu dezakegu?</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>» Egiten duten ahaleginean jarri arreta: arreta nagusia emaitzetan jarri beharrean, jarri arreta egiten duten ahaleginean. Besteak beste: eskolako lanak egiteko ardura hartzea eta ondo egiten ahalegintzea, ondo antolatzen eta denbora ondo erabiltzen saiatzea, eta abar.</li> <li>» Errefortzu positiboak eskaini: ahalegina egiten badute eta ardurak hartzen badituzte zoriondu eta animatu. Epe ertainera eta luzera askoz gehiago motibatzen du egiten dugun ahalegina saritzeak, une jakin batean atera ditzakegun emaitzak saritzeak baino</li> </ul>

Horretaz gain, eskolako lanekin lagundu nahi badiezue, lehenengo eta behin zer egin behar duten galdetu: Zer da egin behar dutena? Zertan behar dute laguntza?

Horren arabera modu batera edo bestera lagundu ahal izango diegu. Laguntza behar izatekotan, ohikoena hiru arlo hauetako batean izango dute: ulermena, komunikazioa eta memorizazioa.

ULERMENA	MEMORIZAZIOA	KOMUNIKAZIOA
<p>Lantzen ari direna ulertzea. Edukiak garatu ahal izateko behar-beharrezkoa.</p>	<p>Hainbat eduki garatzerakoan eskatuko diete. Hainbatetan buruz ikastea baino eduki batzuk ikastea izaten da.</p>	<p>Eskatu dieten etxerako lana aurrera eramatea: gai bati buruz idazlan bat egitea, laburpen bat egitea eta abar. Edukiak barneratu dituela ikusteko beharrezkoa.</p>
<p><b>Oinarrizko estrategia:</b> eskatu beraiei ahal duten moduan azaltzeko eta gero guk ere azalpenak eman.</p> <p>Baliabide lagungarria: euskaraz ez baldin badakigu, itzultzaileak erabili ditzakegu. Honako honek itzulpen onak egiten ditu:</p>	<p><b>Oinarrizko estrategia:</b> ikasi behar dutena orri batean idaztea eta hainbat aldiz irakurtzea. Horretaz gain: memorizatzen lagunduko dieten baliabideak proposatzea. Adibidez: abestuz ikastea edota loturak egitea (ezagunak egiten zaizkien gauzeekin lotzea) eta buru mapak egitea.</p>	<p><b>Oinarrizko estrategia:</b> galderen bidez ideia nagusiak eta argudioak bilatzen laguntzea, edota gai bera ikuspegi ezberdinetatik lantzea eta beraiek dituzten ezagutzak aktibatzea.</p>

<https://www.euskadi.eus/itzuli>



**Kontuan izan:** laguntza behar badute soilik saiatu erabiltzen estrategia hauek. Askotan ez dute laguntza behar eta gurasoak gara guztia ulertu eta bideratu nahi dugunak. Askoz gehiago komeni zaigu ikasteko ohitu-rekin eta motibazioekin laguntzea.

Ohikoa izaten da gai honek gurasoei ezinegona eta segurtasun falta eragitea seme-alabei eskolako lanekin nola lagundu ondo ez dakitenean. Oso kontuan izan:

- » Euskaraz jakin gabe edo ondo jakin gabe ere seme-alabei asko eta behar bezala lagundu ahal izango diegu ahaleginak garrantzitsuena den horretan jartzen baditugu: ikasteko ohiturak eta motibazioak.
- » Etxerako lanekin ere askotan lagundu ahal izango diegu laguntza zertan behar duten argi badakigu.
- » Laguntzeko zailtasunak sumatzen baditugu, gaiaren jarraipena egin: eskolan zuzendu dezatela eta ondoren etxean erreparatu. Hau da, ikasketa prozesuaren jarraipena egin. Beharrezkoa ikusten baduzue, ez izan zalantzarik eta jarri harremanetan irakasleekin: partekatu beraiekin zuen kezkak eta jaso beraien ikuspegia. Seme-alabei nola lagundu ere beraiekin adostu dezakegu. Argi eduki: guraso moduan laguntzen diegu seme-alabei eta ez dugu irakasleen funtzioa bete beharrik, hau da, ez ditugu eduki guztiak ezagutu beharrik eta ez daukagu etxerako lan guztietan lagundu beharrik ere.
- » Arraibide orokor horiei jarraituta ere zenbait zereginetan laguntzeko zailtasunak baditugu, egin gaiaren jarraipen zehatzagoa: egiaztatu nola zuzendu duten eskolan eta erreparatu etxean, hau da, egin ikaskuntza prozesuaren jarraipena.



## Zer egin nik euskaraz ez egiteko eskatzen badit?

Ez kezkatu egoera hau gertatzen bazaizu, ohikoa da. Euskaraz pixka bat edo nahiko ondo dakizuen gurasoen kasuan gertatzen da batez ere. Hau da:

- » Seme-alabekin duzuen harremanean ez da euskara izaten hizkuntza nagusia edo identifikazio hizkuntza.
- » Ondorioz, batzuei arraroa egiten zaie ama edo aita euskaraz entzutea eta erdaraz egiteko eskatzen dute.

Hori gertatzen bazaizue, mezu positiboak eman eta laguntzera animatu: ikus dezatela zuek ere euskara ikasi eta erabili nahi duzuela, pixka bat bada ere. Hizkuntzak ikastea prozesu bat izaten da, eta urratsak eman nahi ditugu. Gainera, ondo pasa nahi duzuela hizkuntzarekin eta beraien laguntza ere nahiko zenuketela.

Egoera hau gerta daiteke seme-alabekin harremana nagusiki euskaraz denean ere. Horrela bada, argi baina goxo adierazi beraiekin harremana euskaraz izatea nahi zenuketela. Zaindu komunikazioa eta harremana, baina jokabidea mantendu dezakezue haurrak naturaltasunez ikusi arte.



## **Gurasookin edo anai-arreben artean erdaraz egiten hasten badira, zer zaindu?**

Gurasookin eta seme-alaben artean euskaraz egitea nahi baduzue eta tarteka bada ere erdaraz egiten hasten badira, kontuan izan nahiko egoera ohikoa dela: sozializazio bide batean daude eta hizkuntzak bereganatzen ari dira, prozesu horretan hizkuntzak ikasteaz gain, hizkuntza ohiturak barneratzen dira besteak beste.

Gurasookin euskaraz egitea nahi baduzue, hasteko, zuek beraiei beti euskaraz egin, baita euskaraz ez dakitenak aurrean daudenean ere. Hori oinarrizkoa da zuekin harremana euskaraz finkatzeari begira. Horretaz gain:

- » Argi adierazi zuei euskaraz egitea nahi zenuketela, zuentzat balio handia duela horrek.
- » Erdararako joera duten egoera horietan euskaraz egiten dizuete-nean, hori bistaratu eta errefortzu positiboak eman: animatu eta zoriondu. "Ez dakizu ze poza ematen didan euskaraz egiten didazu-nean", "Ze ondo, horrela primeran!", "Azkenaldian euskaraz egiten didazu, ez dakizu zein pozik nagoen"...

Anai-arreben artean erdarara jotzen hasten badira, gurasoon eragina mugatuagoa da: etxetik kanpora beste hainbat egoeratan barneratzen ari diren hizkuntza-ohiturak etxean sartzen ari dira. Baina besteak beste, honako hauek zaindu ditzakegu:

- » Argi azaldu etxeko hizkuntza euskara izatea nahi duzuela, zuentzat garrantzitsua dela.
- » Elkarrekin zaudeten egoeretan, ahalegina eskatu eta errefortzuak eman.
- » Helburu txikiak adostu: gustuko dituzten gauzak egitera bagoaz (eskulan bat, jolas bat...), tarte hori erabat euskaraz izango dela adostu. Tarte horretan zorrotz jokatu, laguntza eskaini eta errefortzu positiboak ere bai.

# Haur elebidunen guraso euskaldunen dekalogo

1. Gure seme-alabek hizkuntza bat baino gehiago ondo ikastea nahi genuke eta norabide horretan lagunduko diegu. Eskolaren helburuetako bat ere hori denez, elkarlanean aritzen saiatuko gara.
2. Irakasleekin bilerak egiten ditugunean, hizkuntzen ikaste prozesuaren inguruan eta euskararen erabileraren inguruan interesa erakutsiko dugu. Irakasleek egiten dizkiguten ohar eta gomendioak kontuak hartzen saiatuko gara, guri laguntzeko prest daude eta.
3. Euskara aberatsa izan dezaten, etxetik ahalik eta euskara gehien eskainiko diegu eta euskararekin jolastuko gara (abestiak, ipuinak...). Euskara aberatsa eskaintzea abiapuntu ezin hobea da beste hizkuntzak ere ikasteko erraztasuna izan dezaten.
4. Aukera dugun guztietan eskola orduz kanpoko jarduerak euskaraz aukeratuko ditugu. Etxetik kanpo euskarazko harremanak eskaintzeko bide eraginkorra da. Kirolean, antzerkian edo beste edozein jardueratan euskaraz aritzeko aukera emango diegu.
5. Euskaraz egiteko ohiturak sustatzeari begira, gure hizkuntza ohiturak zaintzen saiatuko gara. Seme-alabek ikusten dutena egiteko joera izango dute. Lagun euskaldunekin euskaraz egiten badugu, eredu ona eskaintzen ari gara. Belarriprest edo Ahobizi jarrera hartuko dugu.

6. Euskarazko erreferenteak eskaintzeko ahalegina egingo dugu: musika, jostailuak, jolasak, telebista, euskarako app eta sare sozialak... Arlo horietan guztietan euskarak bere lekua izan dezan zainduko dugu. Euskarazko erreferenteak ere behar dituzte: aktoreak, kirolariak, telebistako aurkezleak, irrati esatariak, youtuberrak eta abar.
7. Opariak egiten dizkiegunean (Gabonetan eta urtebetezuetan, adibidez), euskarazko opariak ere egingo dizkiegu. Erreferenteak eskaintzeko eta euskararekin harremana zaintzeko bidea da.
8. Euskarazko bizipenak eskaintzeko ahalegina egingo dugu. Etxetik zein etxetik kanpo euskararekin lotuko dituzten esperientziak behar dituzte: eskola orduz kanpo jarduerak, antzerkiak, txotxongiloak, zinea, jaialdiak...
9. Ohiko egoeretatik kanpo euskaraz egiten ahaleginduko gara. Herritik kanpora goazenean, harreman berriak euskaraz sortzen saiatuko gara. Ikusi behar dute euskararekiko jarrera aktiboa dugula eta guretzat euskarak edozein lekutan eta edozertarako balio duela.
10. Beste hizkuntzekiko interesa erakutsiko dugu. Gaztelania eta ingelesa ondo ikastea nahi dugula ikusi behar dute, eta, horretaz gain, beste hizkuntzekiko interesa dugula ikusi behar dute. Eleaniztasunarekiko mezu positiboak emango dizkiegu.



## BALORAZIOA, zure iritzia garrantzitsua da

Zure iritzia jakin nahi dugu gida honi buruz; horretarako, galdetegi labur bat prestatu dugu, QR honetan aurkituko duzuna. Bete, mesedez; bi minutu baino ez duzu emango horretan.

<https://labur.eus/emNeL>



## Bibliografia

Alma Flor, A., Baker, C., *Guía para padres y maestros de niños bilingües* (2001)

Kasares, P., Hernandez J.M, eta beste batzuk. "Transmisioaren molde berriak" (BAT Soziolinguistika aldizkaria, 2015)

Martinez de Luna, I., Suberbiola, P., Basurto, A. *Ikasleen Eskola giroko Hizkuntza erabileraren azterketa* (Ulibarri programa, 2009)

Anderson, U., Anderson, S, *Crecer con dos idiomas: una guía práctica del bilingüismo* (2007)

Harding-Esch, E., Riley, P., *La familia bilingüe: guía para padres* (2003)

Montanari, E, *Crecer en una familia bilingüe: la educación plurilingüe en casa y en la escuela* (2007)

Abdelilah-Bauer, B: *El desafío del bilingüismo* (2007)